

# noaua

**Bus taxi zerbitzua,  
uztailean goizez bakarrik**

**Soka dantzarekin amaitu  
ziren jaiak Kalezarren**

**Pirinioetan asteburu pasa  
antolatu du Andatzak**

**Asier Arruti**

**“Azken urte hauetan ezin izan  
diot hasierako mailari eutsi”**



BEHERAPENAK!

IKKS  
QUEEN

 **Pausoka**  
HAUR ARROPA

KALE MAGUSIA 10 BERRA, USURBIL



Ondo pasa  
Santixabeletan!

**Otar-Goxo**  
E l i k a g a i a k



Santixabel festak ospatzeko  
**produktu goxoenak!**

- harategia · urdaitegia · frutak
- barazkiak · kontserbak · berezitasunak

Zubiaurrenea, nº2 • ☎ 943 36 55 81 

**LIZARDI  
LIBURVENDENDA**



Ondo-pasa  
jaietan!

· IKASTURTE BERRIRAKO  
LIBURUAK SALGAI  
Oporretarako koadernoak, testu liburuak,  
eskolako materiala...

Etxebeste kalea, 1  
☎ 943 361 115

 **Zumeta**  
Jatetxea

**Astelehenetik igandera** 

- Hileko platera:  
txuleta + piperrak + patatak + entsalada
- Razioak, kaxuelitak

**Astelehenetik ostiralera**

- Eguneko menua

**Afariak:** asteburutan eta jaiegunetan

Santixabelak ospatzeko  
leku aproposa  
prezio ONEAN!



☎ 943 362 713 Txokoalde

## Albisteak iruditan

# Kiki eta Koko pozik, publikoarekin

**P**arte hartzailea eta bizia izan zen Kiki eta Koko pailazoen ekainaren 20an frontoian eskaini zuten emanaldia. Gustura geratu ziren protagonistak, euren esanetan bertaratu ziren ikus-entzuleak nabarmen inplikatu zirelako. Urte garai honetan, ikasturtea amaitzearela, NOAUA! Kultur Elkarteak Plis Plas Txalo Ta Jolas ekimenaren baitan antolatutako saioa izan zen iragan astekoa.

### Jaietan, Korri Xalto eta Brinko

Haur eta gazteen eguna Santixabel bezperakoa izango da, uztailearen lehenean. Ekitaldi bete egun izango da eta, tartean, pailazo ikuskizuna ere iragarria dago. Korri, Xalto eta Brinko pailazoen "Artista bat naiz ni" izeneko saioa eskainiko dute frontoian. Arratsaldeko 16:00etan hasiko da pailazoen emankizuna.



Ekainaren 20an aritu ziren frontoian.

## Laburrean

### DBH-ko ikasleentzat oharra

Iragan ostiralean amaitu zuten ikasturtea Udarregi Ikastolako ikasleek. Notak jasotzeko ordua da orain. DBH-koek euren nota buletinak jasotzeko aukera izango dute ostegun honetan, uztailearen 27an, 11:00etan ikastolan bertan. "Egun horretan etortzerik ez duenak, idazkaritzan jaso ditzake uztailearen 15a bitartean, 8:30-13:00 artean", ohartarazi dute Udarregitik.

### Odol ematea, uztaileko bigarren astelehenean

Santixabelak tarteko, Usurbilgo odol emateen elkarteak bi hilean behin lehen astelehenerako finkatu ohi duen hitzordua, astebete atzeratuko da oraingoan. Uztailearen lehenean beharrezan, uztailearen 8an egingo da odol-ematea. Beti-ko ordu eta lekuan, 18:00-20:30 artean anbulatortara joan eta odola emateko aukera egongo da.

### Langabeak kontratatzeko diru-laguntza deialdia

Donostialdeko enpresek langabeak kontratatzeko diru-laguntzak eskatzeko azken egunak dituzte hauek. Jasotako diru-laguntza, langabeak gutxienez sei hilabeterako lanaldi osorako kontratatzerara bideratu beharko dute. 641,40 euro, kontratatzen den pertsona bakoitzeko. Informazio gehiago: [enplegu@usurbil.net](mailto:enplegu@usurbil.net) edo 943 371 951 (Josune Mujika teknikariagatik galdetu).

# noaua

Kultur Elkarteak  
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil  
943 360 321 /// [elkartea@noaua.com](mailto:elkartea@noaua.com) /// [www.noaua.com](http://www.noaua.com)  
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!

#### Elkarteko lehendakaria:

Ana Aizpurua.

#### Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

#### Idazkaria:

Aizpea Aizpurua.

#### Publizitatea:

Bea Alda,

[publizitatea@noaua.com](mailto:publizitatea@noaua.com).

#### Diseinu berria:

Erroitz S. L.

#### Erredakzio kontseilua,

[erredakzioa@noaua.com](mailto:erredakzioa@noaua.com):

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte,

Aizpea Aizpurua.

#### Banaketa:

Olatz Rezola, Arantxa

Zulaika.

#### Laguntzaileak:

Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainar

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieta, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo,

Jon Etxabe, Alazne Begiristain,

Denis Elortza, Pello Aranburu,

Xabier Aranburu, Inma Balda,

Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre,

Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia

Torregarai eta Udarregi ikastola.


**Tirada:** 2.800 ale.

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA**  
**ETA KULTURA SAILA**

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Imanol Ubeda

## “Bertso berriak” (Udarregik jarriak)

Egunotan, 1813ko gudaldia eka-  
rri dute gogora Gasteizen, biga-  
rren mendeurrenean. Donos-  
tina ere ari dira urteurrena presta-

tzen. Donostia Sutan 1813-2013  
elkarteak helburu hauek bete nahi ditu:  
Batetik, 1813ko abuztuaren 31n  
donostiarrak jasandakoa ezagutzera

eman (Donostiaren suntsiketara, auzo-  
kide askoren bortxaketa eta erailke-  
ta). Eta bestetik, biktimak omendu.  
Garaiz dabilenez, pentsatu nahi dut

Donostia Sutan 1813-2013 elkarte-  
ko kideren bat akordatu dela Uda-  
rregik 75. urteurrenean (1878an)  
ondu zituen bertso hauekin.

- <sup>1</sup> Milla zortzireunekin  
amairugarren urtian  
gerra bat izandu zan  
Españi partian;  
desgraziya gogorak  
askoren kaltian,  
Donostiya erre zan  
txit malamentian,  
irurogei ta bost urte  
ezta apartian.
- <sup>2</sup> Frantzesia Española  
traiziyoz zan sartu,  
Madrilla juan da errege  
preso zuten artu;  
zaragata gogorak  
emen ziran sortu,  
baña kontrariyuak  
zitzaizkan agertu,  
arro etorri arren  
laster zan bildurtu.
- <sup>3</sup> Ustez Españolaiko  
buru zan frantzesia,  
arren kontra etorri  
baizan ingelesa;  
anparatzalle txarra  
etzan portugesa,  
bestia erretiran  
estu eta presa,  
etzuen azkenian  
len aña grandeza.
- <sup>4</sup> Pesadunbria maiz-ta  
gerrako lanian,  
kulpa gabiai kargak  
bota geienian;  
ordenak partitu gabez  
errespeto onian,  
Aguztuaren ogei ta  
amaikagarrenian,  
Aguztuaren ogei ta  
amaikagarrenian.
- <sup>5</sup> Donostiyarako zan  
egun itxusiya,  
ondo dakiyenakin  
nago ikasiya;  
nundik-nai sakioa  
eta desgraziya,  
gauza amabilia da  
personen biziya,  
Zubietara etorri zan  
ango justiziya.
- <sup>6</sup> Nola izan zan desgrazi  
orren ondoria  
publikatzeko dana  
badet poderia;  
gauza galduak beti  
badu doloria,  
ziudade guziyak  
erre-koloria,  
estantzi estu artan  
aien baloria!
- <sup>7</sup> Tristura gogorra zan  
nere iritziyan,  
beren ondasunakin  
betiko etsiyan;  
etziraden egongo  
txit pazientiyan,  
ziudadia jarri nai  
lengo dezentiyan,  
Aizpurunjunta eginzuten  
Agorran zortziyan.
- <sup>8</sup> Zerbait disimulatzen  
lengo desgraziya,  
enpeñatu zirala  
dago ikusiya;  
Jueza ta Konsula  
eta Justiziya,  
Kabildo ta bezino  
kuadrilla guziya,  
etzuten zebratu  
obra itxusiya.
- <sup>9</sup> Formal egitekotan  
alako kasuak,  
Justiziya ta Konsula  
ziran prezisuak;  
bezino jaunak ere  
gizon balerosuak,  
gañera sazerdote  
reljiosuak,  
biyotzian ukitu  
Jaun amorusuak.
- <sup>10</sup> Tristura gogorra zala  
nago igarriya,  
bestirikzeregongozan?  
ondarra ta arriya;  
erreunitu ziran  
eitako berriya,  
len zan bezin dezente  
or dago jarriya,  
ziudade formala  
txit gustagarriya.
- <sup>11</sup> Paperak orain dira  
errekonozitu,  
Don Nikolas Soroluzek  
billatuak ditu,  
Aiuntamentuari  
dizka prebenitu,  
gero Gobiernora  
dute akuditu,  
milagro bat bezela  
zaie iruditu.
- <sup>12</sup> Ikusirika obra  
ain arrigarriya  
igez ta aurten egin da  
festa bat berriya:  
Aizpuruko etxiari  
arturik neurriya,  
arri marmol eder bat  
dute ekarriya,  
numeraturik dago  
dezente jarriya.
- <sup>13</sup> Festa zelebratzen da  
ondo dan moduan,  
meza eta sermoia  
tokatzen dan graduan,  
kargua eman zuten  
leku seguruan,  
Don Nikolas Soroluzek  
an zan inguruan,  
pensamentua franko  
bazeukan buruan.
- <sup>14</sup> Soroluzek egin du  
bere alegiña,  
ondo deklaratu zen  
bada zer egiña,  
musika ta bertsolari  
eta danboliña,  
komediante moduko  
kuadrilla bat fiña,  
aumentua're baza  
nai genduben aiña.
- <sup>15</sup> Zubietako bezino  
estimagarriyak,  
leialtadiaz daude  
gogotan jarriyak,  
modu oiek argatik  
daude etorriyak,  
aitormena dutela  
gaude igarriyak,  
sijnifikantza dauka  
Aizpuruko erriyak.
- <sup>16</sup> Orra erregaliya  
Donostiya egin,  
Zubietako jendia  
akordatu dedin,  
gauza onak errebitzen  
beti da atsegin,  
graziyak eman nairik  
ondo ezin itzejin,  
gaitz erdi iñorekin  
ez banu utsejin.
- <sup>17</sup> Donostiya Zubietari  
beti amoriyo,  
berak leialak izan  
dirala meriyo,  
beñere ezta izandu  
oien kontrariyo,  
señale bat ederra  
egin du seriyo,  
elkar estimatziya  
ez da misteriyo.
- <sup>18</sup> Orra bertsuak jarri  
euskerak klaruan,  
ikasten ditubenak  
eduki goguan,  
lenago gauza ori  
ixilik zeguan,  
azaldu biar zana  
nola emen naguan,  
Alkaiñen predikua  
orra nun dagan.

Iturria: 'Udarregi Bertsolaria, Udarregi' (Antonio Zavalaren edizioa). Auspoa, 1966. Sarean ere eskuragarri, [armiarma.com](http://armiarma.com) web orrian.

Imanol Ubeda | Luis Aranalde | Joxe Piñas | Idoia Torregerai | Unai Agirre | Maialen Unanue | Aritz Gorriti | Ugaitz Agirre | Nerea Zinkunegi

## Aisialdiko diru-laguntzak eskatzeko azken egunak

Gogoan izan deialdi honetan kon-  
tuan izan beharrekoak:

- Epea: ekainak 17-28.
- Nori zuzendua: 2012-2013 ikas-  
turtean aisialdiko begirale edo  
zuzendari ikasketak egin dituzten  
usurbildarrei.
- Onuradun izateko baldintzak:

Usurbilen erroldatua egotea, ikas-  
taroa euskaraz eta Eusko Jaurla-  
ritzak homologatua izatea, ikas-  
taroaren alderdi teorikoa gaindi-  
tzea eta araututako gehieneko  
epearen barruan titulua lortzea.

- Aurkezteko lekua: udal erregistroa.
- Aurkeztu beharreko dokumenta-

zioa: diru-laguntza eskari nor-  
malizatua, eskatzailearen NAN  
fotokopia, matrikularen ordaina-  
giria, ikastaroan matrikulatu iza-  
naren agiria, atal teorikoa gain-  
ditu izanaren agiria, zinpeko aitort-  
pena beste diru-laguntzarik jaso  
bada.

- Banatuko diren diru-laguntzak:  
matrikularen %50 (begiraleen  
kasuan, 250 euro gehienez, 150  
euro gehienez zuzendari ikasta-  
roaren kasuan).
- Informazio gehiago: Gipuzkoako  
Aldizkari Ofizialean, ekainaren 7ko  
datan.

Ika Milka atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUA!k ez du bere gain hartzen Ika Milka atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiazatu eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: uztaialak 5. Idatzia ekartzeko azken eguna: uztaialak 1.

# Bus taxi zerbitzua, uztailean goizez bakarrik

Uztailaren 1etik aurrera indarrean jarriko da bus taxiko udako ordutegia. Datorren astetik aurrera beraz, aurreko urteen moduan, landa eremua Kaxkoarekin lotzen duen zerbitzuak goizez bakarrik funtzionatuko du; 7:30etatik 8:30etara, 10:30etatik 11:30etara eta 13:00etik 14:00etara. Arratsaldeetan, 15:30-16:30 eta 19:00-20:00 artean, ez da bus taxirik izango. Ezta egutegian gorritz agertzen zaizkigun uztaileko egunotan ere; uztailaren 25ean, 31n eta datorren Santxabel egunean.

Abuztuaren 2an ibiliko da azken aldiz udalerrian barrena, bus taxi zerbitzua. Gero hila beteko etenaldia izango da. Irailaren 2an berriz ere bidean izango da Behemendik eta Udalak 2008ko urrian elkarlanean martxan jarri zuten zerbitzua. Informazio gehiago, 630 643 596.

■ Uztaila: bus-taxi zerbitzua goizez bakarrik (uztailaren 2an, 25ean eta 31n jai).



Uztailean soilik goizean ibiliko da bus taxia. Abuztuan ez da zerbitzurik izango.

■ Abuztua: bus taxi zerbitzurik ez (abuztuaren 2tik aurrera).

■ Iraila: hilaren 2tik aurrera, bus taxi zerbitzua martxan berriz ohiko ordutegian.

## Aldaketak, bailarako bus zerbitzuan

Foru Aldundiak zortzi autobus zerbitzu berri martxan jarri asmo ditu herrialde mailan. Zerbitzuon ordutegiak kontsultatzeko: lurraldebus.com. Horien artean, Usurbil, Aginaga eta Zubietatik igarotzen diren bi zerbitzu birmoldatuko ditu, uztailaren 1etik aurrera:

**Usurbil-Oria-Lasarte-Ospitalak:** ospitaleetara doan zerbitzu hau egunean sei aldiz Aginagaraino helduko da aurrerantzean, Usurbilgo Udaletik eginiko eskaerari erantzunez.

**Usurbil-Zubieta-Lasarte-Urbil-Hernani:** lehen baino bi aldiz gehiago igaroko da zerbitzu hau Zubietatik. Ospitalera joan nahi duten zubieta-errek bestalde, Lasarten egin beharko dute transbordoa, eta aurrerantzean Aginaga ospitaleekin lotuko duen beste zerbitzuko autobusa hartu. Beste aldaketa bat; lehen Usurbil eta Asti-

garraga lotzen zituen zerbitzu hau, uztailaren 1etik aurrera Hernanin amaituko da. Astigarragaraino joan nahi duenak, Hernanin bertan egin beharko du transbordoa. Erraz, 15 minuturo baitaude Astigarraga aldera joateko autobusak.

### Tarifa eta ordutegi berriak

Besteak beste, egungo tituluak egoera berrira egokitu asmoz, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren esku dagoen Euskotren Sozietate Publikoaren tranbia eta tren zerbitzuen tarifa marko berria indarrean sartuko da, astelehenean, uztailaren 1ean. Euskotren eta Lurraldebus zerbitzuen udako ordutegiak ere martxan dira jada. Gai hauei buruzko informazio gehiago: euskotren.es helbidean, edo 902 543 210 telefono zenbakian.



Uztailaren 1ean indarrean sartuko da tranbia eta tren zerbitzuen tarifa marko berria.

**Jose Aizpurua**  
**Unanue eraikuntzak S.L**  
 teilatuak eta fatxadak  
 943 37 38 79 - 620 80 01 86  
 Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA

**TAXI 24h**  
 Jose Etxabe USURBIL  
 677 37 34 66  
 943 36 21 78

Zuen  
 publizitatea  
 hemen  
 943 360 321  
 publizitatea@noaua.com

# Gipuzkoako Pertsona Gorren II. Topaketa

UZTAILAREN 6AN OSPATUKO DA USURBILLEN, ETA EGUN BETE EKITALDI IRAGARRI DUTE

**E**gunerokoan gorrek bizi duten errealitatea ezagutzera eman eta sentsibilizazio lana bultzatzeko egun osoko jaialdia antolatu dute Usurbilen, datorren asterako. Bigarrenez Gipuzkoa mailan urritasun hau duten lagunei zuzenduriko topaketak antolatu dira, udalerrri honetan oraingoan, uztailaren 6an, larunbatez.



*“Murrizketen ondorioz, beharrezkoak dituzten interpreteen falta dute”*

Aldarrikapenetik ere izango du Gipuzkoako Pertsona Gorren Topaketak.

Gortasuna inoren begi bistakoa ez den urritasuna izanik, ikusi ezin den urritasun hau ikusgarri bihurtzea dute euren erronka nagusia. Komunitate honen inguruan dagoen ezagutza falta gainditzea. Sentsibilizazioa bultzatzea. Beste urritasun fisikoak dituztenen kasuan bezala, egun oraindik betetzen ez diren euren oinarritzko eskubideak errespetatuak izatea eskatzea.

Eguneroko bizitzan, hainbat traba gainditu behar izaten dituzte eta. Medikuairengana edo abokatuarengana doazenean adibidez. Zeinuen hizkuntzan mintzatzen direnez, profesionalen eta euren artean bitartekari lana egingo duten interpreteen beharra izaten dute. Orain ordea, krisialdia tarteko, eta aplikatzen ari diren murrizketen ondorioz, osasun edota lege kontuez komunikatu ahal izateko hain beharrezkoak dituzten interpreteen falta dute.

Baina bada gehiago ere. Hala eta guztian gertatu ohi den moduan, giza baliabideez gain, baliabide tekniko nahikorik ez baitago. Alderdi hau argitzen duten adibide asko jartzen dituzte gorren komunitateko kideek. Igogailuan harrapatuta geratu den pertsona gor bat nola komunikatuko da egoera

autoa matxuratu eta errepide bazterretan nola hitz egingo du telefonoz larrialdi zerbitzuekin? Hauek eta beste hainbat adibide jartzen dituzte, Donostiako Errege Katolikoan kalean, 14. zenbakian egoitza duen Gipuzkoako Pertsona Gorren Elkartearen kideek. Bilgune bizia dute, hainbat ekimen antolatzen dituztena. Elkarte gastronomikoa, ikuskizun eta ekitaldi desberdinak burutzeko eskatokia... denetarik dute bertan. Eta ateak zabalik, bertara joan nahi duten guztientzat. Elkartera sartzeko ate ondoko erakusleihoan, uztailaren 6an Usurbilen ospatuko diren topaketak iragartzen ari dira jada.

## IKUSGARRI EGIN

Jaialdi honekin, errealitate guzti hau plazaratu, ikusgarri egin eta euren oinarritzko eskubideak betetzea eskatuko dute. Jai giroan, egun pasa berezi batekin, Gipuzkoako Pertsona Gorren Elkarteak eta Usurbilgo Udalak uztailaren

horretatik iriteteko? Edo errepidean,

grako antolatu duten jaialdi baten bidez. Gorren elkarteko ei buruzko informazio gehia-

go, martxan duten blog honetan aurkituko duzue: [apsggpgge.blogspot.com.es](http://apsggpgge.blogspot.com.es)

## Gerturatzeko gonbita

Uztailaren 6ko eguna jai giroan biziko dutela ziur. Gorren Elkartetik adierazi dutenez, primeran pasatzera datoz Usurbila. Komunitateko kideen arteko elkar ezagutza bultzatu nahi dute. Ekitaldi guztiak irekiak dira, hau da, herritar orok parte hartu dezake. Eta antolatzaileek ere horixe sustatu nahi dute, egun batez, herritarrek gorren errealitatera gerturatzeko tartea hartzea. Goizean antolatu diren jokoen ostean, eguerdian ospatuko den herri bazkaria irekia eta doakoa izango da edonorentzat. Gonbitea luzatu dute beraz, Gipuzkoako Pertsona Gorren Elkarteak eta Usurbilgo Udalak.

### Uztailak 6, larunbata

- 10:00 Bertaratuentzako ongi etorria.
- 11:00-13:00 Jubilatuentzako eta gazteentzako jokoak eta herri kirolak: igel jokoak, toka, sokatira, zapi jokoak, boloak,

zaku lasterketak, bela-bonba, lkatz Marrazki Lehiaketa...

- 11:00 Gazteak Donostiatik Usurbilera bizikletaz.
- 13:00-14:00 Atsedena eta aisialdia.
- 14:00 Herri bazkaria: txita-paella. Bertaratzen diren guztientzat doan.
- 16:00 Manos K Rien kultur eta arte elkartearen ekitaldia (baiez-tatu gabe oraindik).
- 19:00 Komunitate Gorraren txistek, zeinuen hizkuntzan.
- 19:30 Goizeko jokoen eta lehiaketan sari banaketa.
- 20:00 Agurra.
- Tokia: Askatasuna plaza.
- Oharrak: Taberna bat egongo da egun osoan. Egunean zehar, hitzaldia, "Hondakinen murrizketa eta atez atekoa".
- Antolatzaileak: Gipuzkoako Pertsona Gorren Elkarteak eta Usurbilgo Udalak.

# Koordainketa indarrean, uztailaren 1etik

**Oa eta Iturralde farmaziek prest dute beharrezko azpiegitura astelehenetik aurrera aplikatzen hasiko diren koordainketa sistema berrirako. Funtzionamenduaz, sistema honen eraginaz edota herritarren artean aldaketa honek zer harrera izan duen, horri buruz galdetu diegu bi guneetako langileei.**

- 1- Zer da koordainketa? Nola funtzionatuko du?
- 2- Zeintzuk dira sistema berriaren abantailak eta desabantailak?
- 3- Herritarrak nola ikusten dituzue aldaketa honen aurrean?
- 4- Nola egokitu behar izan dute farmaziek sistema berri honetara?

## Tomax Iturralde, Iturralde farmazia

**1-**2012an Madrilgo Gobernuak onartu zuen Errege Dekretu baten bitartez dator erabakia. Jaurlaritzak helegitea aurkeztu zuen. Baina azkenean Auzitegi Konstituzionalak koordainketa aplikatzea agindu zuen abenduan. Bitarteko teknikoak tarteko, ordea, orain arte atzeratu da. Errentaren arabera, botikak erosteagatik finkatuak dauden tope batzuen barruan ordaindu beharko da; langileek %40, %50 edo errenta oso altukoek %60. Tope batzuen barruan. Pentsionistek orain arte ez zuten ezer ordaintzen. Aurrerantzean bai, botikaren prezioaren %10.



Tomax Iturralde.

honetaz hitz egiteko denbora gutxi egon da. Pazientek halere espero zuten goiz edo beranduago neurri hau indarrean jartzea. Egunotan, herritarrak informatzen ari gara. Herritarrek osasun txartelarekin etorri eta jakin dezakete, zenbat izango den gehenez botikengatik ordaindu beharko duten diru kopurua.

**4-** Hau dena aplikatzeko lan handia egin da. Osakidetza, kolegio farmazeutikoak eta Jaurlaritza lotzen dituen sare informatikoa sortu dute. Hor informazio guztia jasoko da eta telematikoki jakingo dugu paziente bakoitzak ordaindu beharko duen topea, Osakidetza jakinaren gainera egongo da une oro zein den topea. Botikan jarri behar izan ditugu irakurgailu batzuk, Osakidetza txartelak irakurtzeko. Konexioa egiteko sare honekin, sistema hori jartzera etorri behar izan dira. Koordainketa hau tarteko neurri bat da, biharko egunean errezeta elektronikoa jartzeko.

**2-**Abantaila moduan, estatuan egingakoa ez da errepikatuko hemen. Hainbat erkidegoetan, botikak erosten dituzten bakoitzean ordaindu behar dute eta erosketatik jasotako. Botikengatik ordaindu beharreko muga pasatzen dutenean, gaixoek, tiket guztiak hartu eta osasun zentrorara joan behar izaten dute. Gehieneko mugatik pasatzen badira, zor zaien dirua bueltan jasotzeko. Legez sei hilabete hartzen ditu administrazioak diru hori herritarrei bueltatzeko. Hemen ez. Osasun txartelarekin topea zein den jakingo da.

**3-** Kezka eta desadostasuna agertu dituzte pazienteek, eta hori normala da. Urte askoan pentsionistek ez dute ordaindu, eta orain zerbait ordaindu behar denean alarma sortzen da. Bestalde, ekainaren 19an jakin dugu, koordainketa ofizialki uztailearen 1ean sartuko zela indarrean. Gai

## Ainhoa Garcia, Oa farmazia



Ainhoa Garcia.

**1-**Erabiltzaileek orain arte egiten zituzten ekarpenak aldatuko dituzte. Lehen bi talde bereizten ziren; langileak eta pentsionistak. Eta orain, errentaren arabera ekarpen gehiago edo gutxiago egin beharko duten bost talde osatu dituzte. Pentsionistek beti izango dute ekarpenak egiteko topea, muga; %10a. Lanean dabiltzan kasuan, %40,50 edo 60 ordaindu behar dugu, errentaren arabera. Bestalde, errezeta guztiak kodigo batekin datoz. Hor zehaztua dator erabiltzaileek zer ekarpen egin behar duen. Baina batzuetan datu hori okerra izan liteke. Orduan guri balioko diguna osasun txartela izango da. Errezeta ekartzen denean, osasun txartela ekarri beharko da. Eta horrekin eta irakurgailuarekin, Osakidetzaekin kontaktuan dagoen sistema informatiko berri bat jarri digute. Hor ikusten joango gara, pentsionistek duten topea. Topera heltzen direnean, bertan jakingo da, ez dutela gehiago ordaindu behar.

**2-** Pentsionistentzat dator aldaketa handiena. Lehen ez zuten ezer ordaindu behar eta orain ekarpen bat egin beharko dute. Langileok sendagaiengatik ordaindu beharra izatera ohitua goaude. Abantaila, ekarpen mota gehiago egongo dela eta teorikoki, sistema orekatuagoa izango da.

**3-**Aldaketa hau bazetorrela ikusten ari zen jendea, estatu osoan duela urtebete martxan jarri zen eta. Jendea mentalizatu zegoen, baina bai zalantzak dituela zenbat ordaindu beharko duten, zenbat suposatuko

dien. Baina gainerakoan, jakinaren gainera jartzen ari gara herritarrei, errezetarekin batera txartela ekarri behar dutela. Edozer argitzeko hemen gaude. Estatuko gainerako lekuetan ez bezala, hemen ondo egiten ari dira zerbait. Leku askotan, botikengatik herritarrek ordaintzen duten gehitzen joaten dira. Eta gero, erabiltzaileek anbulatoriora joan behar izaten dute ordaindu beharreko gehieneko muga pasa badute, zor zaien dirua jasotzera. Hemen ez, txartelarekin jakingo da topera noiz helduko diren.

**4-** Gutxi barru errezeta elektronikoa ere martxan jarriko denez, egokitzen lanak aurreratu dira. Bide horretatik doa dena. Orain papereko errezetatik elektronikorako trantsizio modukoa biziko dugu. Orain hasiera batean, txartela eta papereko errezeta ekarri beharko baitira. Gutxi barru ordea, paper hori desagertuko da eta dena osasun txartelarekin egingo da.

## Airearen kalitateari eta Ucini buruzko bilera deitu du Udalak

Airearen kalitateak orohar eta, Ucinen keak eta usaiak modu zehatzagoan, zeresan eta kezka ugari sortu dute azken urteotan. Kezka honi lotuta dago ostegun honetarako deitua izan den bilera.

Potxoenean, Urdintxo gelan egingo da bilera, arratsaldeko 18:15ean. Jose Maria Rivadeneira ingurumen zinegotziak egin du deialdia eta Udaletik NOAUA-ra igorri duten deialdiak zehazten duenez, "bilera ordu erdikoa izatea aurreikusten da".



Ostegun honetarako deitu da bilera, arratsaldeko 18:15ean Potxoenean. Maiatzaren 15ean egin zen antzeko bilera, argazkian ikus daitekeen bezala.

## Euskarako diru-laguntzak banatzeko irizpide berriak zehaztu dira

Urtean zehar euskara ikasten aritu direnentzat, astebete barru irekiko da udal diru-laguntzak eskatzeko epea. Uztailaren 3tik 17ra aurkeztu beharko dute beharrezko dokumentazioa udal errejistroan. Adi ordea, diru-laguntzok banatzeko irizpide berriak txertatu baititu Udalak. Aurten, batetik ikaslearen lan egoera aintzakotzat hartuko da, lanean edo langabezian ote den alegia. Eta bestalde, ikasle bakoitzak 2012-2013 ikasturtean burutu dituen ikasketen maila.

Deialdiko oinarrietan, laguntza hauei ematen dien garrantzia nabarmentzen du Udalak: "Usurbilgo Udalak oso garrantzitsutzat irizten dio helduen euskalduntzean eta alfabetatzean eragiteari. Horrexegatik hain zuzen ere, aurrekontu partida bat ezarri du 2012-2013 ikasturtean zehar euskalduntze ikastaroetara joan diren Usurbilgo biztanleei bekak emateko. Bestalde, diru-laguntza oinarri hauen

bidez, behar ekonomiko handiak dituzten usurbildarrei euskara ikasteko bidea erraztu nahi zaie, matrikularen diru-kostua aurreratuz". Hemen, udal diru-laguntza hauen inguruko zehaztasun gehiago:

- Epea: uztailak 3-17 (bi egunok barne).
- Nori zuzendua: 2012-2013 ikasturtean euskara ikasi dutenentzat.
- Baldintzak: ikastaroaren hasieran Usurbilen erroldatua egotea, ikasturtean zehar gutxienez %80ko asistentzia izatea, autoikaskuntzaren kasuan gutxieneko aprobetxamendua ziurtatzea euskaltegiak egindako ziurtagiriaren bidez.
- Aurkeztu beharreko dokumentazioa: diru-laguntza eskari normalizatua, eskatzailearen NANaren fotokopia, matrikularen ordainagiria, %80ko asistentzia egiaztatzen duen euskaltegiak egiaztatzen duen euskaltegiak egiaztatzen

duen zentroko agiria. Ikaslea langabetua denean, "lan historiala" ziurtagiria.

- Onuradunak (gehienez 500 euroko laguntzarekin):

### Ikasle arruntak

Gehienez matrikula kostuaren %80ko diru-laguntza jasoko du euskaltegi 109. urratsa edo HABEren 2. maila arteko ikasketak gainditu dituen ikasleak.

Gehienez %60koa hortik gorako ikasketak egin dituztenek.

### Ikasle langabetuak

Gehienez matrikula kostuaren %100eko diru-laguntza jasoko du euskaltegi 109. urratsa edo HABEren 2. maila arteko ikasketak gainditu dituen ikasleak.

Gehienez %80koa hortik gorako ikasketak egin dituztenek.

Informazio gehiago: <https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2013/06/14/e1305665.htm>

## Autonomo eta merkatariei zuzenduriko jardunaldia

Ekainaren 26rako antolatu dute sektoreko lege-berrikuntzak, baliabide eta diru-laguntzei buruzko informazioa ematea helburu duen bilera. Usurbilgo Udalaren web orrialdetik berri eman dutenez, hitzorduaren helburua, "eskura dituzten baliabide eta dirulaguntza ezberdinei buruz informatzea da, eta baita ere jardura enpresarialak egiten dituzten pertsona fisikoei eragiten dizkieten lege-berrikuntza nagusiei buruz (Lan-erreforma eta Ekintzaileen lege-proiektua)".

Eskualdeko autonomo eta merkatariei zuzenduriko saioa Lasarte-Oriako Villa Mirentxuko (Donostia etorbidea 3) ekitaldi aretoan burutuko da, asteazken arratsaldeko 15:30etatik aurrera. Jardunaldia, Euskal Autonomoen Elkarteak (AVA), Eskualdeko Merkataritzaren dinamizazioarako Bulegoak eta Donostialdea Mendebaldeko udalek antolatu dute.

## Aitzaga Elkarteko batzarra

Aitzaga Elkartearen urbeteko balantzea egingo da bertan, baita martxoaren 14 eta 15ean gatazkaren konponbidea bultzatzeko Bilbon eta Iruñean eginiko Foro Sozialaren balorazioa ere. Gai bat eta bestearekin bi deialdi egin dituzte Potxoenean, asteazken honetarako, ekainaren 26rako. Lehena 18:30etarako, Aitzaga Elkarteko kideentzat. Urtebeteko balantzea, Batzorde berritzea onartzea eta aurrera begirako egitasmoak hartuko dituzte ahotan.

Ordubate beranduagorako finkatua dagoen bigarren deialdia, herritar orori zuzendua egongo da. Bertan, "Gatazkaren konponbideari begirako Foro Sozialaren gomendioen gaineko Sorturen irakurketa" egingo da.



# Soka dantzarekin amaitu ziren San Joan jaiak Kalezarren

**E**gutegiaren kapritxoak. Egun handiarekin batera bukatu ziren festak Kalezarren. Eta Santixabeletan ere, gauza bera gertatuko da. Egutegiak egutegi, San Joan bezperako gauak ez du bere xarma galdu. 22:00etarako zegoen San Joan eskea iragarria eta, ordurako, jende asko zegoen Kalezarren, sua noiz piztuko zain.

## EURIA EZ ZEN TRABA IZAN

San Joan eskearekin batera hasi zuen euria. Tanta gutxi batzuk izan ziren, baina kopletan ari zirenei kanturako gaia eman zien. *“Euria hasi eta halere indarririk ez dugu galdu / euriarekin gure su hori ezin baitugu itzaldtu”*, halaxe kantatu zuen Asier Azpiroz zubietar bertsolariak ekainaren 23an, San Joan bezperako eskean.



QR kode horren bitartez, Soka Dantzaren inguruko bideoa ikus daiteke.



Auzotarren arteko kirol jokoak, tortilla lehiaketa, dantzarien saioa, San Joan sua... Argazki gehiago topatuko dituzue noaua.com web orriko Argazkitegian.

# NOAUA!ko terraza, jaietako topagune berria

FESTETAKO ASTEBURUAN EGONGO DA ZABALIK ETA HERRITARREN BILGUNE BIHURTZEA DU HELBURU

**E**goteko gune lasaia, goxoa. Baina udalerrria egunotan murgilduko den jai giroak kutsatuta, bizia eta alai era berean. Familia, koadrila, gazte, heldu, bazkide... eta herritar ororentzat zabalik izango da hastear diren Santixabel hauetan, Zubiaurrenea kalean (Orbeldi Aseguruak eta Usurbil Optika artean) NOAUA! Kultur Elkarteak jarriko duen terraza gunea. Edateko aukera zabalaz gain, etxean mimo handiz prestatutako jaki bereziak dastatu ahal izango dira, ostiralek igandera. Gastuei aurre egiteko dirulaguntzak murrizten ari diren krisi garai honetan, NOAUA!k behar duen bultzada lortu nahi da ekimen honekin. Gonbita beraz egina dago; etorri ekainaren 28tik 30era kultur elkarteko terrazara, esku zabalik hartuko zaituztegu. Hiru egunez irekita egongo den gune honi buruzko zehaztasun gehiagoren berri, kultur elkarteko lehendakari Ana Aizpuruak dakartza lerrootan.

## Nola sortu da jaietako terraza hau jartzeko aukera?

**Ana Aizpuru.** Aukera baino gehiago, beharra. Krisi garai hauetan diru laguntza beharrea gara. Denok dakigun bezala laguntzak jaitsi egin dira. Elkarte bezala 1996an sortu ginenetik 17 urte pasa dira, gauza asko eskaini ditugu donan. Oraingo honetan jendearen babesa eta laguntza jasotzea eskertuko genuke. Ezin ukatu Udala behintzat ondo portatzen denik. Baina zerbitzuak eman ahal izaten jarraitzeko egitasmoak etorkizunean bizirik jarraitu dezan derri gorrezkoa zaigu laguntza. Hainbat ekimen antolatuta as-



**“Toki berezia nahi genuen, leku lasaia, erraz eta patxadaz biltzeko gune bat”**

“35 bazkide arituko dira hiru egunez lanean”, Ana Aizpuruak aitortu digunez.

mo dugu arurrerantzean. Eta horien artean, Santixabeletan Zubiaurrenea kalean terraza jartzearen ideia sortu zen. Sarri, euskaldunok mahai baten inguruan beste ekimen batzuetan baino errazago biltzen baikara. Proba moduan antolatu dugu gunea aurren. Santixabelak bost egunez izan arren, gure esperientzia asteburura mugatuko da, ostiral arratsaldetik igandegauera.

## Zer berezitasun izango ditu jaietako terrazak?

Berezitasun handiena, lekua. Zerbait berezia nahi genuen, leku lasaia, presarik gabea, jendea erraz, patxadaz bilduko zen gune bat eta asmatu dugula iruditzen zait Zubiaurrenea kaleko terraza aurrealdearekin, eguraldiak laguntzen badu behintzat. Berezia izango da baita lan taldea. 35 bazkide izango dira gunean hiru egunez, festak beste era batera biziko dute-

nak, lana eginez, gozatuz. Oso jende baikorra dugu inguruan, ezin kexatu. Bertan, etxean eta goxo prestatutako janari bereziak zerbitzatuko ditugu, baita mota guztietako edariak ere.

## NOAUA! terraza

**Noiz:** Ekainak 28, 29, 30.

**Non:** Zubiaurrenea kalean (Orbeldi Aseguruak eta Usurbil Optika artean).

**Zer:** jan-edanak.

## “Hiru egun hauek garrantzitsuak izango dira beste ekimenak ere pizteko”

### Nori zuzendu nahi diozu gune berrira gerturatzeko gonbita?

**Ana Aizpuru.** Herri osoari. Gune hau, famili eta koadrila zabalei zuzendua dago. Baita herrira etorri diren lagunei, gu hobeto ezagutzeko aukera zabaldu nahi diegu. Ez dago

leku arazorik. Kultur elkarteak gara baina hiru egunez, aire librean jardungo duen elkarte gastronomikoan bihurtuko gara.

### Zer helburu bete nahi dira ekimen berri honekin?

Finantziazio iturri berrien bi-

la gabilta, baina baita gure jarduera plazaratzea ere: euskara eta euskalgintzari lotutako ekimenak sustatzea, ezagutaraztea... Elkartearekin ekimenak elikatzea. Hiru egun hauek garrantzizkoak izango dira beste ekimenak pizteko!

# Etorri eta ondo pasa!

**O**stiral arratsalde honetan, 19:00etan irekiko da NOAUA!ko terraza. Igande gauerdia arte, Zubiaurreneko gunera etortzera gonbidatuak zaudete. Ekitaldi ibiltariak antolatu dituzuenok ere, animatu eta egin geldialdixoa hiru egunez, jaietarako kultur elkarteak aire librean egokitu duen gunean. Goizetan, indarrak hartzeko gosari ederrak izango dituzue aukeran. Eta 10 euroren truke, etxean mimo handiz eginiko menu berezi eta goxo askoak dastatu ahal izango dituzue eguerdi eta iluntzeetan. Horrekin guztiarekin batera, ez da mota guztietako edaririk faltako.



Larunbatean, kantu jiraren bisita jasoko du NOAUA! terrazak.

## Tokia

Zubiaurrenea kaleko terraza (Orbeldi Aseguruak eta Usurbil Optika artean).

## Ordutegia

Ekainak 28 ostirala 19:00-24:00  
Ekainak 29 larunbata 10:00-24:00  
Ekainak 30 igandea 10:00-24:00

## Gosariak

Egunero: zukuak, tostadak, kafea, esnea, infusioa, Cola cao.

## Ogitartekoak

Txorizo egosia, mixto normalak edo epelak eta tortillak.

## Menu bereziak

Noiz: eguerdi eta iluntzetan.  
10 euro (ogia eta edaria barne).

## Ekainak 28, ostirala

Hanburgesa tomate eta patatekin edo 6 albondiga ehiza saltsan.

## Ekainak 29, larunbata

Marmitakoa eta sagar errea.

## Ekainak 30, igandea

Bakailaoa piper eta tomatez eta udarako mazedonia.

<http://www.noaua.com>

Aldizkariko "Gazi, gozo, geza" atala orain ere noaua.com web orrian



Etxebizitzak, garajeak, motorra, lanpostuak, trukean...  
Zure oharra Internet bidez igo eta kontsulta dezakezu

[www.noaua.com](http://www.noaua.com)

MERKATU TXIKIA

noaua usurbildarren zerbitzura

# SAN JUAN JAIAK 2013

WWW.NOAUA.COM WEB ORRIALDEKO ARGAZKITEGIAN IKUSGAI.  
ESKUKO TELEFONOAREN BITARTEZ ERE IKUS DEZAKEZU,  
KODE HAU BALIATUZ.



**ZUREAK ERE GURE WEB ORRIAN IKUSI NAHI?**

BIDALI SAN JUANETAN ATERA DITUZUN ARGAZKIAK.  
ERREDAKZIOA@NOAUA.COM HELBIDERA ETA DAGOENEKO SAREAN  
DIRENEKIN BATERA IPINIKO DITUGU ZUREAK

Zuen  
publizitatea  
hemen

☎ 943 360 321  
publizitatea@noaua.com

Tapak eta  
aurkibideak  
prest



Agur esan diogu 2012 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2012ko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok azala eta aurkibidea doan jaso ditzakezue NOAUA!ko egoitzan.

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, **Lizardin** edota **Lauroken** egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.

# “Gustura nago egin dudan lanarekin”

IGANDE HONETAN JOKATUKO DU ASIER ARRUTIK PROFESIONALETAKO AZKEN PARTIDA, ZARAUTZEN

**2**006an, 22 urterekin hasi zen profesionalekin jokatzen. Punta-koekin lehiatzen iritsi zen baina lesioen erruz, nahi eta ezin ibili da azken urteotan. Profesional maila utziko du igande honetan, dena den, harro dago zazpi urteotan osatu duen ibilbidearekin.

**Zazpi urte egin dituzu ASPE enpresan. Profesional maila utztekoa zaren honetan, balorazioa egiteko garaia da. Nolakoak izan dira urte hauek? Asier Arruti.** Positiboak. Lehen urteetan maila politean aritu nintzen. Irujo, Titin, Xala eta Lehen Mailako beste pilotariek jolasteko aukera izan nuen. Baina azken urte haueetan ezin izan diot maila horri eutsi, eskuengatik batez ere, eta ez dut behar bezalako kontinuitatea izan. Baina gustura nago egindako lanarekin.

**Pilotan badira urteetan sartuak daudenak eta hor jarraitzen dute. Zuk berriz, gazte utziko duzu profesionaltasuna.**

Beno, azken urte hauetan jende gehienak nire adinarekin



Afizionatuetan jarraitzeko aukera ez du baztertu oraindik (argazkia DV).

edo akaso gaztego utzi du. Ez da sorpresa bat izan. Ikusten nuen zer nolako panorama zegoen eta banekien aurki tokatuko zitzaidala.

**Igande honetako partida, beraz, berezia izango da. Han izango dira etxeokak, lagunak... Urduri jarriko al zara?**

Keba! Ez, ez. Azkenekoa izango da profesionaletan baina niretzat partida bat gehiago izango da. Ea azken honetan paper txukun bat egiten dudan eta ondo bukatzen dugun.

**Usurbilgo frontoian hasi zinen pilotan jokatzen. Nola ikusten duzu pilotaren egoera herrian? Egia esan, ez dut asko segitzen, bai-**

“Hiru partida segidan jokatu eta berriz ere lesionatzeko arriskua dut”

**ASPEk hitz onak izan ditu zurekin. Enpresaren mandatuak ondo bete dituzula beti. Zu ere gustura egon zara ASPEkoekin?**

Bai, gustura.

**Profesionaletan jokatuko duzun azken partida izango da igandekoa. Pilotari lotuta jarraituko duzu gero, ala ez?**

Momentu honetan ez dakit seguru ezer ez. Zazpi urte izan dira eta denbora honetan lanean ere aritu naiz. Bitan ibili naiz, pilotan eta lanean, eta nekatuta eta nazkatua ere bango. Atsedean hartuko dut lehenbizi, eta gero ikusiko dugu

eskuak nola erantzuten duen. Horren arabera, erabakiko dut afizionatuetan jarraitu edo ez.

**Ez zaizu erabat osatu eskua, beraz.**

Bai, baina hiru partida segidan jokatu eta berriz ere lesionatzeko arriskua dut. Ezin ditut udan 10 partida jolastu segidan. Momentu honetan behintzat, lasai hartuko dut eta gero ikusiko dut ia partida batzuk jokatzeke moduan nagoen. Ia aukerarik dudan afizionatuetan entrenatzeko eta jokatzeke.

**Jokatu dituzun partiden artean, zein duzu gogokoena?**

Ez dakit, ia bostehun partida jokatu ditut. Irujorekin batera jokatutako baten bat, baina gogoan-gogoan, ez daukat bereziki partidarik gogoan.

**Debutarena bai, ezta?**

Bai, partida hori berezietakoa izan zen. Ilusio handiarekin zaude, profesionalekin, eta ez dakizu maila emango ote duzun...

## 462 partida

**Asier Arruti Mendizabal**

**Jaiotze data:** 1984/07/27.

**Lehen partida profesionaletan:** 2006-07-30, Zarautz.

**Jokalari mota:** Atzelaria.

**Partidak profesionaletan:**

Jokatuak: 462.

Irabaziak: 234. Galduak: 228.

Alde: 8091. Aurka: 7919.

**Palmaresa:** 2005 GRAVN-eko 22 urte azpiko txapeliduna. 2005 Mungiako Torneoko 22 urte azpiko txapeliduna. 2005 Añorga Torneoko txapeliduna. 2005 Usurbilgo Torneoko txapeliduna. 2005 Amezketako buruz buruko Torneoko txapeliduna.

## “Aimar gehiago izan zen denean”

**Olaizola Ila txapelidun izan zen aurreko igandean. 22-7 nagusitu zitzaion Juan Martinez de Irujori buruz buruko txapelketako finalean. Emaitza ez al zitzaizun harrigarria iruditu?**

**Asier Arruti.** Bai, baina eskuz banakako partidetan, askotan, zaila izaten da 22-20 edo 22-18ko emaitzak egitea. Normalean beti alde batera erortzen dira tantoak eta igandeko partida ikusita, Aimarrek dena oso

ondo egin zuen eta Irujori ez zion inongo momentuan bere jokoa egiten utzi. Partidua ikusi gabe, “22-7, zer pasako ote zen?” pentsatuko nuke. Baina partida ikusita, ez zait harrigarria egiten emaitza. Aimar gehiago izan zen denean.

**Usurbilgo frontoian hasi zinen pilotan jokatzen. Nola ikusten duzu pilotaren egoera herrian? Egia esan, ez dut asko segitzen, bai-**

na gu ibiltzen ginenetik hona uste dut jaitsi egin dela. Herri Arteko Txapelketan ez dira ateratzen pilotari faltagatik. Nik uste dut une honetan jendeak nahiago duela eskubaloian edo futboleko jokatzea. Hori beti izan da horrela, baina orain gehiago ematen du.

Dena den, badator jendea maila polita erakusten, Xabier Sancho adibidez. Eta gazteen mailan ere badatatzeko nahiko onak ere.

# Udan, jolas eta solas

**B**ukatu da ikasturtea, akabo eguneroko etxeko lan, azterketa eta klaseak. Oporretan murgilduak dira ikasleak. Haietako asko gainera, herrian antolatu diren aisialdiko ekimen desberdinetan izena emanda daude. Egitasmo hauek martxan jartzear dira. Santixabelen bueltan abiatuko dira Aginagako eta Zubietako udako txokoak. Festak amaitu ostean, Udajolas eta Ziortzako kanpaldia. Ekimen batzuetan zein besteetan, uda lagun artean eta primeran pasatzeko aukera izango dute berriz, Usurbilgo haur eta begiraleek.

## Txokoak Aginagan

Aginagan jada martxan dira, Antxomolantxa Elkarteko prestaturikoak, ostiralera arte. Eta uztailaren 1etik 30era, San Praixku Guraso Elkarteko antolatutakoak burutuko dira. Ikasturte berria hasteko bezperatan, irailaren 2tik 6ra ere txokoak antolatu ditu berriz Antxomolantxa Elkartek Aginagan.



Zubietako Txokoak uztailean hasi eta abuztuan amaituko dira.

## Txokoak Zubietan

Maiatzean zehar izena eman zutenek bestalde, Zubietako Txokoetan parte hartu ahal izango dute datorren astetik aurrera. Uda honetan 3-11 urte artekoen bilgunean bihurtuko da beste behin, bertako Eskola Txikia.

Goizez eta lau orduz, 9:30-13:30 artean, hainbat ekin-tzetan parte hartzeko aukera izango dute hurrek. Uztailetik abuztu amaierara luzatuko dira Zubietako udako txokoak.

## Kaxkoan... Udajolasera

Haurrak izena emanda daude, begirale taldea ere osatu da. Azken asteotan, uztailean zehar burutuko diren ekin-tzen egitaraua lotzen aritu dira. Dena prest utzi nahi baitute uztailaren 3rako. Santixabelak amaitu eta biharamunean jarriko da martxan, 4-12 urte arteko herriko haur eta gaztetxoei zuzenduriko aurtengo Udajolas. Astelehentik ostiralera, 9:30-13:30 artean burutuko dira uztailaren 30era arte.

## Ziortzako kanpaldiko gunea prest

**S**are sozialen bidez zabaldua zuten deialdia. Iragan larunbaterako Peñaloscintosen (Errioxa) jarria zuten hitzordua Ziortzakoek, uztailean bertan burutuko den kanpaldi-

ko azpiegitura muntatzeko. Denak prest behar du honez gero. Datorren astean, festak igaro ostean baitoaz lehen begirale eta gazteak. Uztailaren 4an hain zuzen, DBH-koak. Hilaren 17ra arte egongo dira

bertan. Gero, LH 5 eta 6 mailako ikasleen txanda izango da. DBH-koak Usurbila itzuliko diren egunean abiatuko dira Errioxa aldera. Uztailaren 25era arte egongo dira Cameros mendizerra inguruetan.

## Nagusien txapelketako finalean, Urruzola eta Santxo

Usurbilgo 41. Pilota Txapelketa

Uztailak 2 asteartea, 17:00

Jubenilak, finala

Zubiria-Eskudero (Amezketza)

Ormazabal-Iruretagoiena (Tolosa)

Nagusiak, finala

Muguruza-Bolinaga (Bergara)

Santxo-Urruzola (Usurbil)

## Pala txapelketako finalak, ostegun honetan

Ekainak 27 osteguna, 18:00

Gurpildunen adiskidantzako partida

Pala teniseko pilotarekin emakumezkoen finala:

Miriam-Miren / Ane-Paloma

Pala gomazko pilotarekin emakumezkoen finala:

Dolo-Aitziber / Zalao-Ana

Pala gomazko pilotarekin gizonezkoen finala:

Imanol Esnaola-Haritz Harreguy

Unai Loidi-Josu Errekondo

## Estitxu Berasategi Espainiako kontzentrazioa deitua izan da

Usurbil Kirol Elkarteko kide Estitxu Berasategi Eizagirre uztailearen 17tik 21era Burgosen ospatuko den kadete eta infantil mailako eskubaloi jokalarien kontzentrazioan parte hartzera deitu dute.

**JUANTXO**  
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8  
943 370 008

**EROSKI/city**

kale Nagusia 10, USURBIL  
943 361182

Andoni Errazkin

**Xukin**  
igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

**USURBIL**  
663 08 76 71 • 943 24 34 65

Okindegia-Gozotegia

**LABE-GOXO**

# Pirinioetarako asteburu pasara joateko, izen ematea irekita



Argazkian, Lakartxelako tontorra.

Zuberoako Pirinioak ezagutzeko aukera eskaini nahi dute aurten, Andatza Mendizaleen Kirol Taldekoek. Asteburu pasa antolatu dute horregatik, uztailearen 13 eta 14rako. Bi ibilbide osatzeko gonbita luzatzen dute; batetik Logibar-Santa Grazi artekoa, 24 kilometrokoa, 7 ordutan egiteko modukoa. "Holtzarteko zubia, Txar-dekogaina (1881 m) eta Kakoetako arroiak ezagutuko ditugu. Ostatua Ligin izango dugu", berri eman dute. Bigarrenik, Santa Grazi-Isaba artekoa. "23 kilometro, 7 orduko ibilbidea. Ehujarreko arroi letatik, Lakora (1887 m), Binbalet eta Lakartxela, eta Mintxateko arroi letara bideratuko gara", iragarri dute Andatzakoek.

## Bazkideek merkeago

Bi eguneko irteerarako izen ematea ireki dute jada. Apuntatzeko azken eguna, uztailearen 10a.

Plaza mugatuak egongo dira, eta lehenasuna, Andatzako bazkideek izango dute. Bazkideak direnek hain zuzen, langabetu eta ikasleek bezala, izena ematerakoan gutxiago ordaindu behar dute; 60 euro. Gainerakoek 65 euro. Prezio horren baitan sartzen dira, aterpeko pentsio erdia eta autobusa. Ordainketak, Andatzakoek Kutxabanen duten kontu korrante zenbaki honetan egin behar dute. 2095 5069 07 1068489805.

## Joan etorria, autobusez

Ohi bezala, joan etorria autobusez egingo da. Abiatzeko hitzordua, hilaren 13rako jarri dute, goizeko 6:00etan Oiardo Kiroldegian. Pirinioetako txangoari buruzko argibide gehiago jasotzeko, bilera deitu dute antolatzaileek, uztailearen 11rako, arratsaldeko 19:00etan Sutegin. Zehaztasun gehiago andatza.com web orrian.

## Santixabeletan ere, izerdi patsetan

Herri kirolak, pilota, pala, bizikleta martxa, bola txapelketa... Kirol jarduera eskaintza zabala ekarriko dute aurten ere, herriko festek. Lehenik eta behin, asteotan jokatu diren pala eta pilota txapelketen finalak. Gipuzkoako II. Mailako aizkolari txapelketa, harri txikiena ere ospatuko da. Oria ibaia kokagune izango duen kayak jaitsiera ere antolatu dute, bola txapelketarekin batera.

### Ekainak 27, osteguna

18:00 Pala txapelketa: ezinduen erakustaldia, emakumezkoen finala eta gizonezkoen finala.

### Ekainak 29, larunbata

16:30 Umeentzako Bizikleta Txiki Martxa. Puntapaxeko zubitik abiatuta. Bizikleta eta kasakoa ekarri.

16:30 XXIII. Igel Joko txapelketa Artzabalen.

18:30 Herri kirolak. Gipuzkoako II. Mailako aizkolari txapelketa (gizonezkoak).

### Ekainak 30, igandea

09:30 VIII. Kayak jaitsiera Alirri (Zubieta).

10:00 Santixabel Bola Txapelketa irekia.

18:30 Herri kirolak: Gipuzkoako Harri Txikien txapelketa (gizonezkoak).

Ondoren, idi-dema.

### Uztailak 2, asteartea

11:30 Ur bataioa Oiardo Kiroldegian.

17:00 XXXI. Pilota Txapelketako finalak (gizonezkoak).

## Eskubaloia eta futbol taldeek agur esan diote kirol ikasturteari

A maitu dira entrenamendu saioak, asteburuetan jokatu beharreko jardunaldiak... 2012-2013 kirol urteak berea egin du. Datorren denboraldiari begira jartzeko unea da orain. Aurretik ordea, joan berri den urtea agurtu dute Usurbil Futbol Taldeak eta Usurbil Kirol Elkarteak.

Eskubaloia eta futbol taldeetako jokalariek, entrenatzaile eta zuzendaritzako kideek iragan larunbatean euren klubetara eguna ospatu zuten. Usurbil Kirol Elkarteak Oiardo Kiroldegian, beterano, guraso, entrenatzaile eta jokalariek jokatu zituzten lagun arteko neurketekin.

Usurbil FT-koek Kaxkoan ospaturiko jokoe-



Eskubaloiko partidak Oiardon jokatu ziren.

kin, zuzendaritza eta beteranoak bildu zituen frontoiko partidarekin.

Eguna berriz, afari baten bueltan amaitu zuten



Usurbil FTko "gazteak", frontoian jokatzen.

guztiek. Eta gero, haietako batek baino gehiagok, Kalezarko San Joanetan noski. Irailietik aurrera itzuliko dira entrenamenduak eta partidak.

## ETXEBIZITZA

## Salgai

Santuena pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukeratu ezin hobea. Iñaki (665736896)

Pisu bat salgai Munalurran. 3 logela, 65 metro, bertizeko. Fatxada eta portala berriak. 138.000 e. 617 972 350.

Atiko bat salgai Zubietan 110m2. 2008-an guztiz berriua. 3 logela handi, 2 komun, 30 m2 egongela. Haize egokitua. 250.000. 669 781 959 Julen.

Etxe bizitza salgai Kalezarren, 120 metro koadro. 16 m terraza, 80 m jardina eta garaje itxia 2 plaza. 676 453 176.

Roller etxeko modulo bat salgai Errioxako Fuenmayor herriko kanpinean. Informazio gehiagorako: 615 760 461.

Pisu salgai Munalurran, guztiz berriua, 1. pisua igogailu gabe, +60 metroko trasteroaren pisu azpian. 2 gela, aire egokitua, kalefakzioa, parket... ikusgarria. 200.000 euro. 636393237.

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisu salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela balkoiekin (horietako bat itxia), bi komun, igogailua eta ganbar handia. Lehen 240.000 euro, orain 200.000 (negoziagarriak). 662 056 899.

Pisu bat salgai Atxegalden. 3 gela, bi komun, sukalde eta salarekin. 662 439 880.

Pisu salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitzi dugu; orain, 36 milioi pezeta-tan (216.000 euro inguru)

Etxea salgai Santuena auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur sai-

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.com Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, arratsaldeko 18:00ak. Atal bakoitzaren goialdean ipiniko ditugu berriak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Ilean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisu salgai, San Esteban kalea 11n. 4. pisua. Kanpoaldera ematen du, eguzkitsua. Hiru gela, sukalde eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbarekin. 943 455 202 edo 697 530 792.

Pisu salgai, San Ignazio 5.3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

90 m pisua salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, 7 metroko ganbara. Oso eguzkitsua, bizitzaren jartzeko. 699680265. 32 milioi pezeta.

Etxebizitza bat salgai Usurbilen. 60 metro. 3 gela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. 943 37 26 33 - 943 36 22 15.

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro koadro trasteroa, berritua, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.

Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

## Alokairuan

Pisu alokairuan edo salgai Munalurran. 637 309 209.

Kaskoan pisu bat alokatzen dugu, Txaramunton. 4 gela, sala, bi komun eta sukaldea. Abala eskatzen da. Tf. 688 675 856

Pisu bat alokatzen da kaskoan, 3 logela, sala, sukalde, komuna. Dena kanpoaldera, eguzkitsua. 648868599

Kaxkoan pisu bat alokatzen da, 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, ganbara eta igogai-

lurarekin. 943371495 - 695767821-657711335

Gela bat alokatzen da dena berriua kaxkoan, gizaseme langile jubilatu bati. Etxe lasaia. Atzerriarrik ez. Tel. 687 348 223.

Logela bat alokairuan Zubietan. 350 euro. 655 744 039.

Alokairuan dagoen etxe bat konpartitzeko pertsona baten bila nabil. 661568471

Pisu edo pisuko gelak alokatzen dira Kontseju Zarra kalean. Pisu eguzkitsua, kanpoaldera ematen du. Alokairu prezioa: 700 euro (pisu osoa), 300 euro gela bakoitza. 650 262 101 / 678 697 213.

Logela bat alokatzen da Usurbilgo pisu berri bategan. 657 700 408

Bi solairuko etxea alokairuan Kalezarren. Baratzeta egiteko aukera. 665 720 913.

4 logeletako etxebizitza bat alokatzen da Atxegalden. 659389707 nerezabala1@gmail.com

Pisu alokairuan Santuenean, 65m berritua, 2 logela, 650 euro. Tf: 667 438 145.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 674 848 346

Pisu bat alokatzen da, lau gela, sukaldea, sala eta komunarekin. 609 011 816 / 943 366 318

Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil 622 856 181.

## MOTORRA

salmenta,  
garajeak

Kia Carnival 2.9 CRDI EX 5P 144 C. monobolumena (7 plaza) salgai. 6.500 euro, 80.500 Kms. 645737925 / 691785568

Garaje itxia salgai. 20 m karra-tuak. Kale nagusia, 26. Usurbil 23.000 euro. 674 343 184

Opel Zafira salgai, 1.781cv. 2010eko urrikoa. 25.000 km. Oso egoera onean. 652759267

Seat Ibiza 1.4Tdi 80zaldi. 58.500km. 2009 urte amaierakoa, 5 ate, txuria. Jabe bakarra, ez erretzailea eta beti garajea.

Volkswagen Multivan 2.5 TDI 130cv salgai. 2006koa, 151.000km, gris iluna. 650919065..

Kale nagusian garaje itxi bat alokatzen da: ate automatikoa eta kotxea eta motoa sartzeko modukoa 667984083

Garaje itxi bat alokagai Artzabalen, frontoi ondoan. 647120253

Lokal bat alokatzen da Atxegalden. 2 solairu ditu, eta 90 metro. Tel. 653 714 672.

Txaramunton kalean garaje itxia alokatzen da. 620 416 963.

## LANPOSTUAK

## Lan eskaerak

Udan edo ikasturtean zehar umek zainduko nituzke. Lan honetan esperientzia duen neska. 653724338

Erizaintzan graduatua naiz eta gaitzauduen pertsoneri erizaintzarako emateko prest nengoke. (688801502 Irati)

23 urteko neska euskalduna naiz eta haurrak zaindu zein klase partikularrak emateko prest nago. Esperientziaduna. (630682716 Maddi)

Haurrak zaintzeko prest nago udaran zehar goizez zein arratsaldez. Irakaskuntza gradua bukatzea eta aisialdi talde batean begirale lanean (688803821 Uxue).

Klase partikularrak ematen ditut ikasturtean zein udan. Irakaskuntza ikasketak eta errefortzu klaseetan esperientziaduna. (647142701 Amaia)

Haurrak zainduko nituzke goizez zein arratsaldez. Irakaskuntzan diplomaduna. (647142701 Amaia)

Auxiliar geriatria eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia

eta nazionalitatearekin, adineko pertsona zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketean. Arduratsua. 622 487 879.

Urteak zaintzen, garbiketean eta zerbitzari lanetan lan egingo nuke. Paperak eta esperientzia ditut. Tel. 666 773 813.

Neska bat eskaintzen da, esperientziaduna haurrak edo helduak zaintzeko. Edozein orduetan lan egiteko prest. 660041361

34 urteko neska arduratsua eta formala etxeko lanak egiteko lan bila, plantxatu, janaria prestatu... Garbiketa lanetarako orohar. 633 921 026 (Alejandra)

Matematikako klase partikularrak ematen ditut 672 427 870. Goi mailako ingeneriatza ikasketak egin ditut.

Euskara klaseak ematen ditut. Euskal filologian lizentziatua eta irakaskuntzan esperientziaduna. Haur eta gazteentzako klaseak. Azterketen prestaketa (EGA, HABE, IVAP, IRALE). 653 710 073

Mutil katalan gazte euskaldun berri bat eskaintzen da, adinekoak zaintzeko edo katalanera-ko klaseak emateko. 677 290 212 (Roger).

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arratsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte arduraduna, arratsaldeetan 6-12 urte-tako umeei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia daukat. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperientziaduna, akademian lan egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2. mailara arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularrak emateko. 636601644

Matematika klaseak, maila guztietan, 19 urtetako esperientzia,



## Zorionak Oihane!

Zorionak zure familia osoaren partez. Ondo pasa eta muxu handi bat!



Zorionak Axel eta Maddi, zuren bigarren urtebetetzeari! Muxu handi bana etxeko partez!



Zorionak udaran urteak beteko dituzuen guztioi! Malen, Pablo, Enaitz, Imanol, Irati, Nagore, Intza eta Ignacio. Muxu potolo bat eta asko disfrutatu Agiñako eskolako partez.



## Heriotzak

Maria Isabel Zapirain San Sebastian 82 urterekin hil zen, ekainaren 21ean Errekatxiki



Ohar, zorion-agur, jaio edo hildakoen berri emateko azken eguna: asteartea, eguerdiko 11:00etan erredakzioa@noaua.com



646717676

Usurbilgo neska euskalduna naiz, goizez nahiz arratsalde, klase partikularrak emateko zein haurrak zaintzeko prest. 688 661 997 / 943 365 005".

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase partikularrak emateko. Telefonoa: 660 778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildar euskaldun bat, haurrak zaindu edota klase partikularrak emateko LH-n nahiz DBH-n. Esperientziaduna. 666041971 (Ane)

Jardineritzako lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzean laguntzeko, morroi lanetarako, tabernan lan egiteko... 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 609632030.

Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Esperientzia handia, arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. 618 030 296.

Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568

Emakume esperientziadun bat umeak edo pertsona helduak

zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.

Gizonezko bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldean lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.

Emakume bat eskaintzen da, adineko pertsonak zaintzeko, etxeko lanak egiteko ostalaritzarako, interna moduan 673445 903.

Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324

Umeak zaindu arratsalde edo

zerbitzari gisa lan egingo nuke asteburuetan. 638 894 845.

### Lan eskaintzak

Emakume euskaldun eta esperientziaduna behar da Astigarragan, haur txiki bat zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Egun osoan, astelehenetik ostiralera. 943 550 550

Pizza banatzailea behar da Usurbilgo taberna batean. Telefono zenbakia: 9433743 30

### BESTELAKOAK

Hemengo intxaurra erosiko nuke,

deitu 634 409 888

Frantseseko klaseak hartuko nituzke. 666 607 447

Erromeri talde baterako, tronpetata eta tronboi jole bila gabiltza uda honetako kontzertuetan hasteko. 660214740

Etxean egindako haur manta bat galdu dugu, koadroduna, morea, grisa, horia eta naranja kolorekoa. Aurkitzen baduzu: 626 368 019

Ezkontzetan, festetan edo antolatzen dituzuen ospakizunetarako Dj lanak egiteko prest. 615 713 204 edo djlarra@usurbil.com

Usurbil eta inguruetan belardiak hartuko nituzke, belar ondua egiteko. 667406010.

Hiru metroko sofa salgai, "txeslorarekin". 400 euro (negoziagarririk). Berri berria. 653 711 574.

2. eskuko josteko makina bi salgai. Modu onean. 943 36 32 01.

Karbonozko bizikleta erdi berria salgai. Prezio ona. Tel. 600244 126

Su egurra salgai. Haitza eta Pagoa. 667 232 300.

Gazte usurbildarra, ordenagailuko klaseak etxeetan emateko prest. 943 360 503/672 718 721.

Maxi-Cosi Cabriofix eserlekua salgai gehi kotxearen lsofixean lotzeko. 130 euro: 657795378

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai 637 974 994

Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi? 665 745 071 (Iñaki).

Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

### TRUKEAN, OPARI

Ordenagailuak, bulegoetako eserlekuak, haurjokoak, liburuak, kirol materiala, ispiluak, lanparak, alfonbrak, sehaskak, maletak... Atalluko Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera, 10:15-13:00 eta 16:00-19:00. Larunbatetan, 9:00-13:00.

## Telefono interesgarriak

Udala .....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea .....	943 376 650
Atez ateko bulegoa .....	900 776 776	Taxia (Angel) .....	607 928 770
Udaltzaingoa .....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz) .....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada) .....	943 370 148	Eusko Tren .....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea .....	697 919 516	LurraldeBus .....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak .....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua .....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea .....	943 361 215	Anbulategia .....	943 362 013
Bake Epaitegia .....	943 372 336	Oa botika .....	943 376 076
Udarregi Ikastola .....	943 361 216	Iturralde botika .....	943 363 395
Haur Eskola .....	943 374 061	DYA .....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola .....	943 364 600	Gurutze Gorria .....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra .....	943 372 077	Emergentziak .....	112
Hastapen tailerrak .....	943 360 465	Genero-indarkeria, arretra ..	900 840 111 / 016
KZgunea .....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea .....	943 362 163
Oiardo Kiroldegia .....	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa .....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia .....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala .....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola .....	943 371 594	Banco Guipuzcoano .....	943 370 006
Etumeta AEK Euskaltegia .....	607 609 379	Banco Popular Español .....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa .....	943 365 249	BBVA .....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza .....	943 368 770	Caja Rural Kutxa .....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza .....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola .....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza .....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas .....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia ..	943 361 239	Telefonica .....	1004
NOAUA! Kultur Elkarte .....	943 360 321	Euskaltel .....	900 840 840

## Goardiako farmaziak ekainak 27-uztailak 7

<b>Osteguna</b>	<b>27</b>	RODRIGUEZ	K. Nagusia 42 Lasarte
<b>Ostirala</b>	<b>28</b>	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
<b>Larunbata</b>	<b>29</b>	GANDARIAS-URIBE	Iñigo de Loyola 9 Lasarte
<b>Igandea</b>	<b>30</b>	GANDARIAS-URIBE	Iñigo de Loyola 9 Lasarte
<b>Astelehena</b>	<b>1</b>	ACHA-ORBEA	Hipodromo etor. 6. Lasarte
<b>Astearte</b>	<b>2</b>	URBISTONDO	San Franzisko 1 Lasarte
<b>Asteazkena</b>	<b>3</b>	GANDARIAS-URIBE	Iñigo de Loyola 9 Lasarte

<b>Osteguna</b>	<b>4</b>	ORUE	Jaizkibel 2. Lasarte
<b>Ostirala</b>	<b>5</b>	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32 Lasarte
<b>Larunbata</b>	<b>6</b>	ORUE	Pl. Jaizkibel 2 Lasarte
<b>Igandea</b>	<b>7</b>	ORUE	Pl. Jaizkibel 2 Lasarte

\* LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak irekita  
egongo dira: 9:00etatik  
13:30era.

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
Garikoitz Aldabe. Perkaiztegiakalea 8  
(Antziola). Hernani. 943 336 022  
22:00 - 09:00

[www.noaua.com](http://www.noaua.com)  
USURBILGO ATARIA

**JON ELORZA**  
**IGELTSERITZA**  
**OROKORRA**  
Obrak eta erreformak  
**661 804 688**  
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

# Agenda ekaina

## 28 ostirala

- **Oilasko biltzaileen Eguna. Santixabel jaiak** (ikus gehigarri berezia).
- **Zirriborro tailerraren erakusketa.** Ekainak 28-uztailak 2. Sutegiko erakusketa aretoan. Orduetgia: 11:00-13:00 / 18:00-20:00.

## 29 larunbata

- **Santixabel jaiak** (ikus gehigarri berezia).
- **Zirriborro tailerraren erakusketa.** Ekainak 28-uztailak 2. Sutegiko erakusketa aretoan. Orduetgia: 11:00-13:00 / 18:00-20:00.

## 30 igandea

- **Santixabel jaiak** (ikus gehigarri berezia).
- **Zirriborro tailerraren erakusketa.** Ekainak 28-uztailak 2. Sutegiko erakusketa aretoan. Orduetgia: 11:00-13:00 / 18:00-20:00.

## Las Dos D Habanako bikotea, Santixabel jaien agurrean

Proposamen berri bat, Santixabeletako ekitaldien zerrenda luzerako. Habanatik Las Dos D bikotea dator aurtengo festak agurtzera. Danieuris eta Daniellis Moya Ávila ahizpekin amaituko ditugu aurtengo herriko festak. "Kubako canción"-aren tradizio guztia biltzen du, bere melodien edertasunarekin eta bere erritmoen oparotasunarekin. Aldi berean, abesti ezagunen interpretazio berritzaileak eskainiz eta baita abesti berriak sortuz ere", berri eman dute antolatzaileek.

Poeta ezagunen lanak ezagutzeko aukera eskainiko dute, "azken aldian konposizio berri eta argitaragabeak sortu dituzte, Kubako poeta ezagunen lanean oinarrituz. Musikapen lan honen bidez, Kubako poeta onenen lana nabarmen da, eta aldi berean, argi geratzen da Kubako musikak erritmo eta melodia kutsakorrez gain, testu landuagoak ere erabili ditzakeela".

Habanera, danzón, boleroa, sona, cha-cha, feeling-a, *canción* generoa edota fusioa baliatzen dituzte, besteak beste Dulce María Loy-naz, Fina García Marruz, Roberto Fernández Retamar, Antón Arrufat, Miguel Barnet, Nancy Morejón, Carilda Oliver Labra, edota Cintio Vitieren testuak abesteko.

Ibilbide luzea joratu dute bi ahizpek. "Konposizioan, pianoan eta ahots-armonian jasotako formazio klasiko batekin, hainbat urtez ibi-



Azken trakaren ondoren joko dute, txosnetan.

li dira irlan zehar emanaldiak eskaintzen, euren estiloa moldatuz eta boleroaren eta Kubako trova zahar zein berriaren errepertorio tradizionala interpretatuz", diote antolatzaileek.

### Pirritx eta Porrotxekin,

#### "Ongi etorri Pupu eta Lore" diskoan

Euskal Herrian ezagunak dira bi ahizpok. "2010. urtean, duoak Pirritx eta Porrotx eta Marimotxekin "Ongi etorri Pupu eta Lore" diskoko 5 konposizio musikaletan hartu zuen parte. Bere errepertorioan euskal poeten abestiak ere nabarmen tzen dira: Leire Bilbao, Jon Gerediaga, Edorta Jiménez...", berri eman dute antolatzaileek. Euren saioa, uztailaren 2an txosnetan, azken trakaren ostean.

### Datozenak

#### Haurrentzat gin-kana, uztailaren lehenean

Santixabel jaietan, aurtun, uztailaren lehenean ospatuko da Umeen Eguna. Gin-kana izeneko ekitaldian, gurasoek eta haurrek hartuko dute parte. 10:30ean hasiko da eta frontoian egingo da jolas festa. Udarregi ikastolan ikasten dutenek jasoko zuten oharrak. Zure haurraren izena eman ez baduzu oraindik, idatzi email bat helbide honetara: [jsoroa6@gmail.com](mailto:jsoroa6@gmail.com). Eta bertan adierazi, parte hartu asmo duen haurraren edo haur taldearen izen abizenak eta ikasturtea.

Haurren Egunerako laguntzaileak ere eskertuko lituzkete antolatzaileek.

#### Bertso saioa, Santixabel bezperan

Amaia Agirre, Onintza Enbeita, Jon Maia, Andoni Egaña, Iker Zubeldia eta Ibai Esoain bertsolariak kantatuko dute aurtengo festetan. Bertso saioa larunbarekin egokitu izan da azkenaldian. Baina aurtun, Santixabel bezpera egunean egingo da. Uztailaren lehena astelehenez, 22:30etatik aurrera.



**ARGILAN**  
 INSTALAZIO ELEKTRIKOAK  
 629 272 859 eta 943 36 13 80  
 BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL

**Kima**  
 MASAJE LEKUA  
 · KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA  
 · KOLONAREN HIDROTERAPIA  
 Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

KALITATEZKO PRODUKTUEKIN ESTILISMOA ETA ESTETIKA LANTZEN DITUGU



### ESTETIKA ESKAINTZAK

Gorputz espolazioa eta masajea edo Aurpegiko garbiketa osoa edo Manikura eta pedikura osoa: **30€-tan** (jubilatuentzat 22€)

IKASLE EDO 18 < GAZTEENTZAT, DEPILAZIOAN:  
Ingleak + besapeak: **10€** · Bekainak eta bibotea: **7€**  
Hanka osoak: **18€** · Hanka erdiak: **10€**

Egurditan irekia! Nagusia 8, Usurbil tel: 943 36 36 41



**USURBILGO  
LANBIDE  
ESKOLA**

**943 36 46 00**

**www.lhusurbil.com**

## Erdi eta goi mailako zikloak A eta D Ereduak

Administrazioa eta kudeaketa



Elektrizitate-elektronika



Fabrikazio mekanikoa



Ura eta energia  
Produktio zerbitzu eta manten.



**Honako honen bila bazabiltza:** Kalitatezko irakaskuntza, lanpostu bat topatzeko erraztasuna, enpresa praktikak, atzerrian praktikak, ekipamendurik berriena.

# AURREMATRIKULA maiatzaren 27tik ekainaren 7ra



# UDARREGI



# IKASTOLA



On do paxa sant\*xabekak!!!



943 361 216

**Udarregi Ikastola**

Gernika ibilbidea, USURBIL

[www.udarregi.com](http://www.udarregi.com)

[www.udarregi.mundua.com](http://www.udarregi.mundua.com)